

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

HARANeko UDALA

Prozedura irekia, Haranean kokatuturik dagoen Zaldiharana zentro hipiko integratzailearen instalazioen errentamendua eta ustiaketa adjudikatzeko

Haraneko Udalak, 2020ko abenduaren 29ko osoko bilkuran, hasierako onespena eman dio Haraneko Zaldiharana zentro hipiko integratzailearen instalazioen errentamendua eta ustiaketa lehiaketa bidez adjudikatzeko prozedura irekia arautuko duten baldintza administratibo-ekonomikoen agiriari.

Baldintza agiriaren laburpena

1. Lizitazioaren xedea: Agiri honen helburua da arautzea Haraneko Zaldiharana zentro hipiko integratzailearen instalazioen errentamendua eta ustiaketa lehiaketa bidez adjudikatzeko baldintzak. Lokala eta instalazioak hipoterapia jardueran soilik erabili edo erabili ahal izango dira, eta ez da kontuan hartuko jarduera horrekin zerikusirik ez duen beste edozein, salbu eta Udalak jardueraren zati bat zentro hipiko bateko ohiko jardueretan erabiltzea baimentzen badu. Betebehar hori betetzen ez bada, kasuan kasuko eskaintza lehiaketatik kanpo geratuko da.

2. Lizitazio oinarria: Oinarrizko errenta edo lizitazio tasa urtean 3.600,00 eurokoa izango da, eta zenbateko horri dagokion BEZa gehituko zaio.

Lizitazio tasari buruzko hobekuntzak gorantz egingo dira.

3. Prozedura, izapidetzea eta era: Irekia. Arrunta. Lehiaketa.

4. Esleipenerako irizpideak: Askotarikoak:

a. Lokalaren funtzionamendu instalazioak ustiatzeko proiekturik onena: gehienez, 40 puntu.

b. Eskaintako errenta handiena: gehienez, 10 puntu.

3. Euskaraz jakitea: gehienez, 10 puntu.

d. Hipoterapiako negozioak ustiatzen izandako esperientzia, agiri bidez egiaztatu beharko dena: gehienez 40 puntu.

5. Behin-behineko bermea: Ez.

6. Behin betiko bermea: Behin betiko bermea esleipen zenbatekoaren ehuneko 5 (BEZa aparte) izango da.

7. Espedientearen azterketa: Haraneko Udalaren bulegoetan (Entzia hiribidea 52, Alda, 01117 posta kodea, Araba), 09: 00etatik 14: 00etara, 22 egun naturaleko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

8. Eskaintzak aurkeztea: Eskaintzak Haraneko Udalaren bulegoetan (Entzia hiribidea 52, Alda, 01117 posta kodea, Araba) aurkeztuko dira, 09: 00etatik 14: 00etara, 22 egun naturaleko epean, lizitazio iragarkia ALHAOn eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Egun hori ez bada balioduna, epea hurrengo egun baliodunean amaituko da.

9. Eskaintza eredu eta aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailleek baldintza agirian jasotzen den eskaintza ereduaren arabera aurkeztu beharko dituzte eskaintzak, eta bertan adierazitako agiriak ere aurkeztu beharko dituzte.

10. Eskaintzak irekitzea: B eta C gutun azalak jendaurrean irekiko dira Haraneko udaletxean, proposamenak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo bosgarren egun naturalean (egun hori larunbata edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera aldatuko da).

11. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria eskuragarri egongo dira Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman, www.contratacion.eus.

Harana, 2021eko otsailaren 5a

Alkate-lehendakaria

ROSA MARIA IBARRONDO MANZANOS